**UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 15/2014**

L A S A R T E - O R I A K O U D A L B A T Z A R R A K **2014 k o AZAROAREN 17an** EGINDAKO **EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

A C T A D E L A **S E S I Ó N EXTRAORDINARIA Y URGENTE** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **17 DE NOVIEMBRE DE 2014.**

**ETORRITAKOAK:** **ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE | Pablo Barrio Ramirez jn. | (BILDU) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE | Nerea Sanchez Lopez and, | (BILDU) |
| | Gorka Lizarrraga erro jn. | (BILDU) |
| | Alaitz Mendizabal Urdapilleta and. | (BILDU) |
| | Tasio Arrizabalaga Azpiroz jn. | (BILDU) |
| ZINEGOTZIAK: | Jesús Mª Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Iñaki Múgica Flores jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Txus Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Estitxu Alkorta Barragán and. | (EAJ-PNV) |
| | Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Ana Isabel Prieto Narciso and. | (LOHP-PCLO) |
| | Juan José Castro Domínguez jn. | (LOHP-PCLO) |
| | Vanessa Vélez de Pablos and. | (PP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO | Francisco Xabier A. Egea Jauregi jn. | |
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR | Ion Murua Guinea jn. | |

**EZ ETORRITAKOAK:** **NO ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES | Nerea Artamendi Erro and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Martin Moreno Garcia jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Marisa Zubiri Bustillo and. | (Concejal No adscrito) |

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2014ko AZAROAREN 17eko 09:30ak zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Pablo Barrio Ramirez Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 09:30 horas del día 17 de NOVIEMBRE de 2014, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Pablo Barrio Ramírez, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1.- URGENTZIAREN ONARPENA**

**1.- APROBACIÓN DE LA URGENCIA**

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamaika botorekin (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2 PCLO), kontrako bat (1 PP) eta bi abstentziorekin (2 EAJ-PNV) urgentzia **ONARTU** egiten du.

El Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con once votos a favor (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2 PLO), uno en contra (1 PP) y dos abstenciones (2 EAJ-PNV), **APRUEBA** dicha urgencia.

**2.- LASARTE-ORIAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA : HAU DA, "ATSOBAKAR ZAHAR-EGOITZAREN KUDEAKETAREN ESKUALDATZEARI DAGOKIONA"**.

**2.- APROBACIÓN DEL CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA, RELATIVO AL TRASPASO DE LA GESTIÓN DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL PARA PERSONAS MAYORES ATSOBAKAR.**

Zerbitzu Sozial, Inmigrazio, Kooperazio, Enplegu eta Emakumeen Batzorde informatiboak, 2014ko azaroaren 6 ko bilkuran igorritako ditaminaren berri ematen da.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer, en reunión celebrada el día 6 de noviembre de 2014.

Ikusita Zerbitzu Sozial, Inmigrazio, Kooperazio, Enplegu eta Emakumeen Batzorde informatiboak luzatuako diktamina, non "Atsobakar egoitzako kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartu beharreko kolaborazio konbenioa" proposatzen den:

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer, en el que se propone la "Aprobación del Convenio de Colaboración a suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa para el traspaso de la Gestión de la Residencia Municipal para Personas Mayores Atsobakar":

Alkate jaunak hartzen du hitza eta esaten du gaia ezaguna dela eta aurreko plenoan mahaigainean geratu zela balorazioak zirela eta. Jarraitzen du esaten eraikin eta lurraren balorazioa egin dela eta aurreko egunetan jaso zutela txostena alderdi guztiek. Aipatzen du mobiliarioaren balorazioa geratzen dela, fakturazioa egin gabe dagoelako baina alde horretatik diru kopurua berbera izango dela. Segitzen du esaten ikuspegi kontable batetik oraindik hori ez dela ofiziala eta orduan planteatzen dena, Kontuhartzaile jaunak aurreko txostenean agertzen zuen moduan, momentu honetan dagoen balorazioa jartzea dela eta gero bere momentuan, eskualdatzea indarrean sartzen denean, benetako balioa ezartzea.

Bozkatzera jarrita hitzarmena, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamahiru botorekin (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2, EAJ-PNV, 2 PCLO) eta kontrako boto batekin (1 PP), honako akordioa hartzen du:

Sometida a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con trece votos a favor (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO) y un voto en contra (1 PP), toma el siguiente acuerdo:

**LEHENIK ETA BAKARRA.-** Onestea Lasarte-Oriako udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena: hau da, "Atsobakar Zahar-Egoitzaren Kudeaketaren Eskualdatzeari dagokiona".

**PRIMERO Y ÚNICO.-** Aprobar el Convenio entre el Ayuntamiento de Lasarte-Oria y la Diputación Foral de Gipuzkoa, relativo al Traspaso de la Gestión de la Residencia Municipal para Personas Mayores Atsobakar.

Toma la palabra la Sra. Vélez para aclarar que el PP no esta en contra de que de una vez por todas la Diputación asuma una de sus funciones, sino que están en contra de como se han hecho las cosas. Continúa diciendo que se han enterado por la prensa de como se había llegado a un acuerdo en Juntas Generales y que no se les ha dado información ni explicaciones. Añade que de hecho, a pesar de que ella no estuvo en el anterior pleno, se quedó el punto encima de la mesa porque ni siquiera a los corporativos se les dió la información necesaria para tomar una decisión o para saber en que términos se había llegado a ese acuerdo. Sigue diciendo que a día de hoy siguen sin tener la información completa, además de que no le parece serio que se convoque un pleno de urgencia por la mañana, sin tener información y se les mande dicha información un viernes a las 19:15 de la tarde por e-mail. Comenta que sin previo aviso, ella no tiene porque abrir el correo durante el fin de semana al igual que el resto de los trabajadores y que no es serio que ni se les avisara, sobre todo siendo un tema capital para este Ayuntamiento. Dice que no es serio que se les haya tratado una vez mas así y que se hagan las cosas en la penumbra, sin transparencia y sin dar información. Añade que se pasan las cosas por comisión cuando se pasan y se traen a pleno porque sí, y pregunta que hay de urgente y porque tienen tanta prisa, porque ni tan solo se ha justificado la urgencia. Continúa diciendo que es una vergüenza que una vez más, y en un tema tan importante, los corporativos no tengan la información completa. Recuerda que además esto viene de un acuerdo de Juntas Generales y no por ninguna gestión que se haya hecho por parte de este equipo de gobierno.

Toma la palabra el Sr. Zaballos y dice que no se quiere repetir en lo que ya intervino la semana pasada en este punto del orden del día, y simplemente dice que para ellos es un día satisfactorio por esta decisión que se ha adoptado, porque desde 2001 vienen exigiendo desde el Partido Socialista que la residencia de ancianos fuera asumida por parte de la Diputación. Comenta que como ha dicho la portavoz del PP, las gestiones no se han realizado desde el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, sino que se han realizado entre el PSE y BILDU en las Juntas Generales de Gipuzkoa, por lo que no pretendan ciertos concejales asumirlas como propias porque no lo son. Añade que al final el servicio que se va a prestar en la residencia de ancianos lo asuma la Diputación o lo prestara el Ayuntamiento va a ser el mismo, el personal se mantendrá en la mismas condiciones como reclamaron ellos en las Juntas Generales y que lo único que va a cambiar es la facturación que va a venir a nombre de la Diputación en vez de el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Para terminar dice que lo que si quiere pedir pese haber votado a favor de este acuerdo, es que el Ayuntamiento no se puede olvidar ya de la residencia de ancianos, sino que tiene que ser el supervisor de que este acuerdo se cumpla y que espera que el Sr. Lizarraga y el Sr. Alcalde estén encima de la residencia de ancianos y de la Diputación para que este acuerdo se cumpla en todos sus términos, para que ni los trabajadores ni los ancianos se vean perjudicados.

Lizarraga jaunak hartzen du hitza eta esaten du aurreko plenoan emandako datu orokorrak errepikatzearren, azaldu nahi duela zer suposatuko dion eskualdatze honek Udalerriari. Aipatzen du alde batetik erresidentziak Lasarte-Orian kokatuta jarraituko duela, nahiz eta aldundiak bere gain hartu zerbitzua aurrera begira, eta herritarrek bere familiar nagusiak herrian bertan izateko aukera izango dutela. Bestalde esaten du urgentzia hau ekartzearen arrazoia, hitzarmen hau luzatu izan balitz Udalak fakturak ordaintzen jarraitu beharko lukeela dela eta defizita ere bere kargu joango zela, beraz Udalak ahalik eta gehien aurrezteko egin dutela. Gaineratzen du azken urteotan Udalak, urtero, 800 mila eta milioi bat euro arteko defizita jasan duela, nahiz eta 2008tik legeak dioen erresidentziak Aldundiak gestionatu behar zituela. Jarraitzen du esaten, langileei dagokionez, legeak dioen bezala subrogazioa beharrezkoa dela, beraz langileri osoa subrogatuko litzatekeela. Segitzen du esaten

Aldundiak, “KABIA” elkartearen bitartez gestionatuko lukeela hasiera batean zerbitzua eta dirudienez intentzioa, lehenengo urtetan subkontrata enpresen bitartez gestionatzea dela. Aipatzen du aurrera begira intentzioa, langileria Aldundiak bere gain hartzea dela. Esaten du legegintzaldi aldaketa etorriko dela eta ikusiko dela nola joaten diren gauzak baina asmoa behintzat hori dela. Gaineratzen du nahiz eta gaur egun langileria Diputazioaren ratioaren gainetik egon, bai lortu dela Aldundiarekin akordioa erresidentziako plazak handitzeko, beraz 6 plaza gehiago egongo direla erresidentzian eta 10 eguneko zentroan, eta horrek gaur egungo defizit ekonomikoa eta langile gehiegi edukitze hori parekatzea ahalbideratuko duela. Jarraitzen du esaten Udal eraikinari dagokionez, azken orduan eginiko balorazio bat izan dela, eta mobiliarioari dagokiona berriz, mahai gainean uzten dutela pixka batean, berria delako eta guztia inbentariatu behar delako, baina ez duela uste arazo handirik egongo denik aspektu horretan Aldundiarekin. Bukatzeko esaten du albiste hona dela 2015eko aurrekontuei begira, esan bezala Udalak 800 mila eta milioi bat euro arteko diferentzia hori, beste gastu batzuk egiteko izango duelako aukeran. Beraien aldetik, zati bat, gizarte zerbitzuak indartzen jarraitzeko erabiliko dutela dio eta etxeko laguntza zerbitzua beraien konpetentzia izango denez hemendik aurrera, hori indartze aldera nahiko luketela erabili zati bat. Beraz, poztekoa dela dio eta legegintzaldi honetan lortu dela akordioa, baina ez dutela asumitzen meriturik, akordioen bitartez lortzen bait dira gauza guztiak eta espero dutela kasu honetan bezala, beste hainbat gauzetan ere akordioetara iristea.

Alkate jaunak hartzen du hitza eta esaten dio Velez andreari barkamena eskatu behar diola, zeren beste taldeekin bai jarri zela harremanetan eta berarekin ez, eta bere akatsa onartzen duela.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 09:55 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Ni, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 09:55 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.